



RENOBALES TRONCOSO, JANIRE

Ur botila baten truke

Betidanik gustatu izan zait Arriaga Antzokia. Itsasadarraren zaindari. Denboraren lekuko. Lasaitasuna transmititzen du haren harrizko horma handiei begiratzeak eta barruan jotzen diren soinuekin amesteak. Baina gaur desberdin ageri da. Pertsona gehiegi elkartu dira beraren enparantza txikian. Urduritasuna nabari da airean. Peto koloretsuak eta kilometro asko eginak dituzten zapatila zaharkituak oinetan. Paisaia desberdina dirudi gaurkoak.

Pum! Hasi egin da. Jende ugari ari da parte hartzen. Areatzako pasealekua estuagoa dirudi hainbeste lagun hemen elkartuta. Inurrien moduan, aurrera goaz, tipi-tapa, bakoitzak ahal duen bezala. Lagun batek emandako aholkua etorri zait burura: garrantzitsuena arnasketa ondo egitea da. Saiatzen ari naiz, kostata. Beharbada gehiago entrenatu behar nuen... guztiok eduki beharko genituzke ohitura osasungarriagoak. Hara! Hortxe ageri da udaletxea, balkoi nagusian pankarta erraldoia duela, "Bilbo Joko Olinpikoekin ere". Ezkerrerantz biratu eta errepidetik jarraitzen dugu Buenos Aires kalean gora. Azkenean, gerizpea. Hiriko eraikin grisek eguzki honetatik babesten gaituzte. Plaza Biribila jendez gainezka dago eta txaloka ari dira! Norbaitek botila bat ur jaurti dit eskura. Eskertzen dira horrelakoak. Dastatzeko ia tarterik ez eta paperontzian saskiratzen dut. Estilo polita daukat; agian, saskibaloia proban ere hartu beharko nuke parte.

Erritmoa moteltzen ari dira. Nahi eta ezin. Korrikalari batzuk atzean gelditzen hasi dira. Ezkerrerantz egin du oraingoan kirolari-karabanak. Ez dakit zein kale hartu dugun, ez baitut astirik izan kartela begiratzeko. Aurrekoaren bizkarra ikusteaz aspertuta, zerurantz altxatu dut begirada. Jaungoikoari indarrak eskatzeko, akaso.

Bero egiten du. Puppy agertu zaigu aurrean, dotore-dotore, Euskadiko Joko Olinpikoetako logoa duen kamiseta erraldoia jantzita duela. Txalo gehiago entzuten ditugu Guggenheim Museoaren aurrean. Bihotz taupada azkarrek ez digute zaleek luzatzen dizkiguten kemenezko mezuak entzuten uzten. Atzean utzi dugu txakurra eta haren burdinezko "etxolatxo". Aurrera goaz, itsasadarraren ondoan, Kantauri itasoan libre mugituko den ur-korrontearen abiaduraren parera.

Gero eta lehiakide gutxiago gelditzen ari gara, hogeia lagun inguru, ez dut astirik atzera begiratzeko. Jendetza dago Euskalduna Jauregiaren inguruetan; Joko Olinpikoetarako irabazle suertatu den abestia entzuten da bozgorailuetatik eta bihotza azkarrago ari zait taupaka. Animo, heltzear zaude eta! Bai, harrapatuko zaitut, lehena iritsiko naiz... Ene! Zer nolako fisikoa duten lehiakideek! Arranopola! Batek gurutzatu egin du helmuga!

Hiru metro, bi eta bat. Norbaitek zaplada bat eman dit bizkarrean. Ezin dut gehiago! Lurrean zerraldo erori behar dut. Makurtu eta belaunak estutuko ditut. Izerditan blai nago! Ur freskoa? Bai, mesedez. Nori bururatu ote zitzaien Bilbon barrena hiri-lasterketa antolatzea? Gogorra izan da benetan proba. Ez nago ni oso 'olimpiko' Joko hauetan aritzeko...

A cambio de una botella de agua

Siempre me ha gustado el Teatro Arriaga. Guardián de la ría. Testigo del tiempo. Mirar a sus grandes paredes de piedra e imaginar las melodías que suenan dentro transmite tranquilidad. Pero hoy amanece diferente. Se han concentrado demasiadas personas en su pequeña plaza. Se respira nerviosismo en el ambiente. Petos de colores y viejas zapatillas que han hecho demasiados kilómetros en los pies. El de hoy parece un paisaje distinto.

¡Pum! Ha comenzado. Está participando mucha gente. El paseo del Arenal parece más estrecho. Me viene a la cabeza el consejo de un amigo: lo más importante es la respiración. Lo estoy intentando, a duras penas. A lo mejor tenía que haber entrenado más... todos tendríamos que tener unas costumbres más saludables. He allí el ayuntamiento con una pancarta enorme adornando el balcón, "Bilbao también con los Juegos Olímpicos". Giramos hacia la izquierda y continuamos por la calle Buenos Aires. Al fin, un poco de sombra. Los grises edificios de la ciudad nos protegen del sol. La Plaza Circular está llena de gente y, ¡aplauden! Alguien me ha lanzado una botella de agua. Se agradecen este tipo de gestos. No tengo casi tiempo de saborearlo cuando lo lanzo con éxito a una papelería. Tengo un bonito estilo, debería participar en alguna prueba de baloncesto.

El ritmo comienza a reducirse. Querer y no poder. Algunos participantes empiezan a quedarse atrás. Esta vez, la caravana de corredores ha girado hacia la izquierda. No sé qué calle hemos tomado ya que no he tenido ocasión de fijarme en el cartel. Aburrido de mirar la espalda del de delante, fijo la mirada en el cielo para, quién sabe, pedirle fuerzas a Dios.

Hace calor. Aparece Puppy vestido elegantemente con la camiseta oficial de los Juegos Olímpicos. Escuchamos más aplausos frente al Museo Guggenheim, pero los fuertes latidos del corazón no nos permiten escuchar esos mensajes de ánimo. Dejamos atrás al perro y su "chabola" de hierro. Seguimos, junto a la ría, al ritmo de la corriente que desembocará libre en el Cantábrico.

Cada vez somos menos competidores, alrededor de veinte, no tengo tiempo de mirar atrás. Hay una gran afluencia de público en los alrededores del Euskalduna; se escucha la canción que ha sido ganadora como himno y mi corazón late cada vez más fuerte. ¡Ánimo! Llegaré el primero... ¡menudo físico tienen los contrincantes! ¡No! Uno ha cruzado la línea de meta.

Tres metros, dos, uno. Alguien me ha dado una palmada en la espalda. ¡No puedo más! ¡Estoy chorreando! ¿Agua fresca? Sí, gracias. ¿A quién se le ocurriría organizar una carrera por la ciudad? Ha sido duro; no estoy yo muy 'olímpico' para estos Juegos...